# TXOSTENA
# MEMORIA
# 2010



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

TXOS
TENA
MEMO
RIA10

**ARGAZKIAK**
FOTOGRAFÍA
Enrique Moreno Esquivel
Jorge Flores

**DISEINUA**
DISEÑO
Aurman

TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

# AURKIBIDEA ÍNDICE


**Aurkezpena-gutuna** 6
Carta de presentación

**Administrazio batzordea** 8
Consejo de administración

**2010ko ikuskizunak** 12
Espectáculos 2010

**ZINEBI 2010** 60
ZINEBI 2010

**Kolaborazioak** 64
Colaboraciones

**Estatistikak** 74
Estadísticas

**Alokairuan gauzatutako jarduerak** 83
Eventos desarrollados en alquiler

**Azpiegitura eta zerbitzuak** 84
Infraestructura y servicios

**Antzokiko produkzioak** 86
Producciones propias

**Esker onak** 91
Agradecimientos



**AURKEZPEN-GUTUNA**
CARTA DE PRESENTACIÓN

**Ibone Bengoetxea Otaolea**
**Arriaga Antzokiko**
**Presidente Eragilea**
Presidenta Efectiva
del Teatro Arriaga

Aurten ere, Arriaga Antzokiak Memoria honetan jaso eta ezagutarazi nahi ditu 2010ean zehar eskaini dituen jarduera guztiak.

Jarraian azaltzen dira gure eszenatoki gainean eta "foyer"ean aurkeztu diren ikuskizun guztiak, bai antzokiak berak ekoitzitakoak eta bai koproduktore gisa garatu dituenak. Bestalde, jasota utzi nahi dugu nolako harrera egin zieten ikusleek proposamenei, zenbat besaulki bete ziren eta zenbateko diru-sarrerak bildu ziren, termino absolutuetan nahiz portzentajeetan. Gardentasuna lortzeko ahalegin honetan, ezagutzera eman nahi dugu zeintzuk izan diren antzokiak erregistratu dituen zifrak, antzoki publikoa delako.

Eta krisi ekonomikoak denoi eragin digun arren, atseginez eta lasaitasunez esan genezake emaitzak positiboak izan direla eta antzokiko ikusle kopurua nabarmen hazi dela gainera. Horixe da zalantzarik gabe gu pozteko arrazoi nagusia, argi uzten baitu Antzokiak publiko fidel eta hazkorra duela.
Hauxe da eskerrak emateko unea. Eskerrak Antzokiko Administrazio Kontseiluko kideei, gure babesleei, Arriagako langile guztiei, beren adimena eta sentsibilitatea eszenatokira ekarri diguten artistei, Arriagako Lagunei eta batez ere gure publiko guztiari, mila esker.

Eta azkenik gonbidapen bat: zatozte Antzokira. Badakizue gure ateak zabalik daudela.

Un año más el Teatro Arriaga quiere hacer, mediante esta Memoria, pública exposición de las actividades que a lo largo del año 2010 lo mantuvieron ocupado.

A continuación se detallan todos los espectáculos que se presentaron sobre su escenario y en el "foyer", los montajes que tuvo la iniciativa de producir y aquellos en cuya coproducción participó. Queremos además dejar constancia de la acogida que el público otorgó a estas propuestas, cuántas localidades se ocuparon y qué ingresos produjeron en términos absolutos y porcentuales. Pretendemos, en fin, en un esfuerzo de transparencia, que sean públicas las cifras de un teatro público.
Y aunque la crisis económica afecta a todo y a todos, podemos decir con satisfacción y, para qué negarlo, con alivio, que los resultados han sido positivos y que el teatro ha visto aumentado significativamente el número de sus espectadores. Y ello es, sin duda, el principal motivo de alegría porque pone en evidencia que el Teatro cuenta con un público fiel y en crecimiento.

Este es el momento de dar las gracias. Gracias a los miembros del Consejo de Administración del Teatro, a nuestros patrocinadores, a los trabajadores del Arriaga, a todos los artistas que nos han traído su inteligencia y sensibilidad, a los Amigos/as del Arriaga, y sobre todo a nuestro público, muchas gracias.

Y por último una invitación: vengan al Teatro. Saben que nuestras puertas están abiertas.

**EL BARBERILLO DE LAVAPIÉS**



**ADMINISTRAZIO BATZORDEA ETA ARRIAGA ANTZOKIAREN ZUZENDARITZA**

CONSEJO DE ADMISTRACIÓN Y DIRECCIÓN DEL TEATRO ARRIAGA



## ARRIAGA ANTZOKIAREN KONTSEILARIAK
## CONSEJO DE ADMINISTRACIÓN TEATRO ARRIAGA

**BEREZKO PRESIDENTEA**
PRESIDENTE NATO

Excmo. Sr.
Don Iñaki Azkuna Urreta

**PRESIDENTE ERAGILEA**
PRESIDENTA EFECTIVA

Doña Ibone Bengoetxea Otaolea

**KONTSEILUKIDEAK**
CONSEJEROS

Don Eduardo Maiz Olazabalaga
Don Jose Luis Sabas Olabarria
Don Luis Hermosa Santamaría
Don Txema Oleaga Zalbidea
Don Txema Gonzalo Casal
Don Javier Viar Olloqui
Doña Begoña Salinas Solano
Don Pío Ortiz de Pinedo Maza

## NOR GARA
## QUIENES SOMOS

**Zuzendari Artistikoa**
Director Artístico:
Emilio Sagi

**Zuzendari Artistikoaren Albokoa**
Director Artístico Adjunto:
Daniel Bianco

**Zuzendari Nagusia**
Director Gerente:
José Ignacio Malaina Sánchez

**Programazio Zuzendaria**
Director de Programación:
Andoni Olivares Ijalba

**Zuzendari Teknikoa**
Director Técnico:
Javier Iturrioz Uriondo

**Errejidorea**
Regidor:
Joseba Erkiaga Cilloniz

**Kampo Harremanak eta Protokoloa**
Relaciones Externas y Protocolo:
Miren García Bernaola

**Programazioaren Koordinatzailea**
Coordinadora de Programación:
Izaskun Etxebarria Goikoetxea

**Eszena Koordinatzailea**
Coordinadora Escénica:
Maribel Belastegi Gómez

**Areto Burua**
Jefe de Sala:
Miguel Calle Herrero

**Programazioko Teknikaria**
Técnico de Programación:
Nahikari Aretxederra Olabarri
María Dolores del Campo Serrano

**Zuzendari Teknikoaren Laguntzailea**
Ayudante del Director Técnico:
Alberto Gutiérrez Campo

**Giza Baliabideetarako Administrari Laguntzailea**
Auxiliar Administrativo de RR.HH.:
Natividad Alonso Alonso

**Administrari Laguntzailea -Kontabilitatea**
Auxiliar Administrativo-Contabilidad:
Jesús Mª Rico Hernández

**Teknikari Laguntzailea**
Técnico Auxiliar:
Itziar Olalde Rementería
Fernando Seisas López
Jon Barañano Iradier
Javier Peñas Peñas
Maite Pérez Fernández

**Aretozaina**
Acomodador/a:
Sara Villa Arroyo
Daniel Díez González
José Manuel Sánchez San Juan
Antonio Soto Ibáñez

**Jostundegiko Arduraduna**
Responsable Sastrería:
Oscar Armendáriz Lucarini

**Argiketarien Buru**
Jefe de Electricistas:
Fco. Javier Saiz Blanco

**Argiketaria**
Electricista:
Antonio de la Cruz Arias
Ángel Mª Alonso García
José Antonio Becerra
Gorka Ochoa Gorostiza
Itziar Resano Igoa

**Tramoiaria**
Tramoyista:
Ibon Andueza Elorza
Germán Cundín Pérez
Fco. Javier Izagirre Goikolea
Joseba Urkizu Villalain
Gorka García

**Tramoiarien Laguntzailea**
Ayudante de Tramoyista:
Darío de Castro
Oscar Cáceres
Asier Joven

**Zinema Jaialdiko Idazkaria Orokorra**
Secretaria General – Zinebi:
Inés Intxausti Garmendia

**Teknikari laguntzailea -ZINEBI**
Técnico Auxiliar -ZINEBI:
Lucía Goitia Calzada

**Prentza**
Prensa:
Cristina Angulo (Conmunica)



**2010ko IKUSKIZUNAK**
ESPECTÁCULOS 2010

MIRENTXU

# JOSÉ MERCÉ

## urtarrila 7 enero

José Mercé flamenko kantariak inauguratu zuen Arriaga Antzokiaren 2010eko programazioa. Santiago auzoko jereztar hau -Paco Luzen birbiloba eta Manuel Soto "Sordera"ren iloba- bere ahots leun eta sakonaz baliatzen da publikoa gozarazteko eta bere artearekin zerbait berri eta egiazkoa lortzeko. Horrelaxe liluratu zituen cante flamenkorik onenaz gozatzeko bildu ziren zale guztiak.

El cantaor flamenco José Mercé inauguró la programación del año 2010 del Teatro Arriaga. Este jerezano del barrio de Santiago, bisnieto de Paco Luz y sobrino de Manuel Soto "Sordera", con su voz suave y profunda que sabe llenar al público y hacer de su arte algo nuevo y verdadero, encantó a los muchos aficionados que se reunieron para gozar de una jornada del mejor cante flamenco.



Michel Tremblay

# POR EL PLACER DE VOLVER A VERLA

## urtarrila 8 - 10 enero

Miguel Angel Solá argentinarrak eta Blanca Oteyza madrildarrak osatutako aktore bikote paregabeak antzerkian izandako azken arrakasta aurkeztu ziguten: "Por el placer de volver a verla". Quebec-eko Michel Tremblay egilearena da jatorriz eta Manuel González Gil-ek zuzendu zuen. Protagonistak oso goiz hil zitzaion bere ama dakar gogora, gertakari hark bere bizitza markatu zuelako eta idazteko zaletasuna piztu ziolako.

La estupenda pareja de actores constituida por el argentino Miguel Angel Solá y la madrileña Blanca Oteyza nos presentaron su último éxito teatral, "Por el placer de volver a verla", original del autor quebequés Michel Tremblay y dirigida por Manuel González Gil. En ella el protagonista recuerda a su madre, fallecida en edad temprana, que marcó su vida y despertó su vocación de escritor.



Francisco Asenjo Barbieri

# EL BARBERILLO DE LAVAPIÉS

## urtarrila 27 - 31 enero

"El barberillo de Lavapiés" zarzuela bat da, Barbieri-ren musika eta Luis Mariano de Larraren (idazle erromantiko handiaren semearen) libretoa dauzkana. Carlos III.aren garaian girotuta dago, baina Gustavo Tambascio eszena zuzendariak 60ko hamarkadako Madrilera eraman zuen. Daniel Bianco izan zen eszenografiako arduraduna eta Jorge Rubioren esku geratu zen Bilbao Philarmonía Orkestraren, Bilbao Koralaren eta aktore bikainez osatutako taldearen zuzendaritza.

"El barberillo de Lavapiés", zarzuela con música de Barbieri y libreto de Luis Mariano de Larra, hijo del gran escritor romántico, está ambientada en tiempos de Carlos III, pero su director escénico Gustavo Tambascio lo trasladó al Madrid de los años 60. Daniel Bianco firmó la escenografía y Jorge Rubio dirigió musicalmente a la Orquesta Bilbao Philarmonía, la Coral de Bilbao y un reparto de excelentes intérpretes.



# MARIELLA DEVIA

## otsaila 2 febrero

Lirika zaleak ikaragarri poztu ziren Mariella Devia, gaur egungo soprano ospetsuenetako bat, gure antzokian izango zela jakitean. Maiz aritzen da opera antzoki eta kontzertu areto ezagunenetan eta bere errepertorioan bel canto estiloko paper handienak biltzen ditu. Bere errezitaldian artista ugariren obrak eskaini zituen: Chopin, Charpentier, Liszt, Massennet, Gounod, Bellini, Donizetti eta, besteak beste, Verdi.

Para los aficionados a la lírica fue una estupenda noticia la visita a nuestro teatro de una de las más renombradas sopranos de la actualidad, Mariella Devia. Figura habitual de los más renombrados teatros de ópera y salas de concierto, su repertorio incluye los grandes papeles del bel canto. En su recital nos ofreció obras de Chopin, Charpentier, Liszt, Massennet, Gounod, Bellini, Donizetti y Verdi.



David Mamet

# GLENGARRY GLENN ROSS

## otsaila 4 - 6 febrero



David Mamet-ek Pulitzer Saria lortu zuen obra honekin 1984an. Obra honetan higiezinen enpresa bat ageri da, langileei elkarrekiko lehia bizia inposatzen diena; lehia horretan sartzen ez dena kaleratua izango da. Gaurkotasun handiko obra honen zinemako bertsioa Jack Lemmon eta Al Pacinok interpretatu zuten eta oraingoan Teatro Español antzokiak eginiko muntaia izan genuen ikusgai, Daniel Veronesek zuzendua eta Carlos Hipólito eta, besteak beste, Gonzalo Fernández de Castrok interpretatua.

David Mamet obtuvo en 1984 el Premio Pulitzer por esta obra ambientada en una empresa inmobiliaria que obliga a sus empleados a una feroz competencia entre ellos, so pena de ser despedidos. Esta obra de inquietante actualidad, cuya versión cinematográfica fue interpretada por Jack Lemmon y Al Pacino, nos fue ofrecida en un montaje del Teatro Español, dirigido por Daniel Veronese e interpretado entre otros por Carlos Hipólito y Gonzalo Fernández de Castro.



Trilok Gurtu Band

# MASSICAL

## otsaila 8 febrero

365 Jazz Bilbao Kontzertu Zikloaren barnean aukera izan genuen Trilok Gurtu musikariak sortutako banda entzuteko. Gurtu Bonbain jaio zen 1951n eta erritmo fusioaren esparruko erregeetako bat da askoren iritziz. John Coltrane eta Jimi Hendrix handien iturrietatik edan du eta musikari handiekin jo du, hala nola Don Cherry, John McLaughlin edota Pat Metheny. Bere azken grabaketa "Massical" izeneko CDa da.

Dentro del Ciclo de Conciertos 365 Jazz Bilbao tuvimos ocasión de escuchar a la banda creada por Trilok Gurtu, el músico nacido en Bombay en 1951, que está considerado como uno de los reyes de la fusión de ritmos. Influido por John Coltrane y Jimi Hendrix, ha tocado junto a músicos como Don Cherry, John McLaughlin y Pat Metheny y su última grabación es el CD titulado "Massical".





MARIELLA DEVIA

Manuel García

# L’ ISOLA DISABITATA

## otsaila 11 - 14 febrero

Manuel García sevillarra bere garaiko tenor handienetakoa izan zen eta María Malibrán eta Pauline Viardot-García-ren aita eta maisua ere bai. Arriaga Antzokiak eta Emilio Sagi Arriagako zuzendariak berreskuratu nahi izan zuten Manuel Garcíaren opera hau eta Sagi bera arduratu zen eszenaratzeaz. “L’isola disabitata” 1831n eginiko lau ahotsetarako ganbera opera bat da: sopranoa, mezzo-sopranoa, tenorra eta baritonoa, pianoak lagunduta.

La recuperación para el escenario de esta ópera del sevillano Manuel García, uno de los más grandes tenores de su época y padre y maestro de María Malibrán y Pauline Viardot-García, fue una iniciativa del propio Teatro Arriaga y de su director Emilio Sagi, responsable de su puesta en escena. “L’ isola disabitata” es una ópera de cámara concebida en 1831 para cuatro voces: soprano, mezzosoprano, tenor y barítono, y acompañamiento de piano.



# SARA BARAS

## otsaila 16 - 21 febrero

Bere izena daraman Baletaren buru dela, Sara Baras dantzari handiak bere hamargarren muntaia aurkeztu zigun. Hamargarren honek aurreko bederatzi ikuskizun ahaztezinetako unerik distiratsuenak biltzen ditu eta omenaldia egiten dio bere karrerari, artistaren etengabeko eboluzioa laburbilduz. Zuzeneko musika, dantza talde paregabea, artista gonbidatu ezagunak eta batez ere flamenko ona, horiek dira ikuskizun honetan aurkituko ditugun osagaiak.

La gran bailarina Sara Baras, al frente del Ballet que lleva su nombre, nos ofreció el décimo de sus montajes, resultado de entresacar los momentos más brillantes e inolvidables de sus nueve espectáculos anteriores y que rinde homenaje a su carrera y resume la evolución constante de la artista. Música en directo, un cuerpo de baile inmejorable, la presencia de destacados artistas invitados y sobre todo flamenco del bueno constituyen los elementos presentes en este espectáculo.



Ballet del Gran Teatro de Ginebra

# COPPELIA

## otsaila 25 - 26 febrero

Genevako Antzoki Handiko Baletak Leo Delibesen “Coppelia” obrari buruzko muntaia bat eskaini zigun; Cisco Aznar dantzari eta koreografo katalanak eginiko berrirakurketa original bat da, zeinak, aldaketa batzuekin eta dantza, bideoa eta testuak konbinatuz, mugarik gabeko fantasiazko ikuskizuna osatu baitu, betiko gai unibertsalak ere jorratuz: gaur egungo bikotearen gorabeherak eta desioaren bortizkeria.

El montaje que de “Coppelia” de Leo Delibes nos ofreció el Ballet del Gran Teatro de Ginebra es una relectura original del bailarín y coreógrafo catalán Cisco Aznar, que introduciendo algunas modificaciones, y mezclando danza, video y textos consigue un espectáculo de una fantasía desenfrenada, donde se abordan algunos temas universales: las vicisitudes de la pareja moderna y la violencia del deseo.



Compañía de Danza Aukeran

# GERNIKA

## otsaila 27 febrero

Edu Muruamendiarazek zuzentzen duen Donostiako Aukeran Dantza Konpainiak “Gernika” (Mihise gaineko dantza) bere azken ikuskizuna eskaini zigun. Muntaia berri honek 1937ko apirilean Gernikan gertatutakoa kontatzen du, bonbardaketa jasan zutenen ahotsekin. Proposamen honek dantza tradizionala eta garaikidea fusionatzen ditu, lengoaia fresko eta gaurkotua sortuz.

La donostiarra Compañía de Danza Aukeran dirigida por Edu Muruamendiaraz nos ofreció su último espectáculo titulado “Gernika” (Danza sobre lienzo). El montaje es la narración de lo ocurrido en la villa vizcaína en abril de 1937, contado por aquellos que sufrieron el bombardeo. La propuesta fusiona la danza tradicional y contemporánea consiguiendo elaborar un lenguaje más fresco y actual.



PSB

## PALOMA SAN BASILIO

### otsaila 28 febrero



**Hogeita hamahiru urtez eszenatoki gainean lanean jardun ostean, Paloma San Basiliok "PSB" izeneko ikuskizuna aurkeztu zigun, bere ibilbideko eta errepertorioko onena eskaini ziolarik Bilboko publikoari. Kontzertuan instrumentuak elkarrekin hizketan aritu ziren eta berak ere hitz egin zuen musika tresnekin, entzuleei fusio intimo horren beroa helaraziz. "PSB" siglak artistaren inizialak dira bai, baina baita ere kontzertuan berekin dituen Piano, Saxo eta Baxuarenak.**

Paloma San Basilio, tras treinta y tres largos años trabajándose los escenarios, nos presenta este espectáculo que ha titulado "PSB", en el que destila lo mejor de su trayectoria y su repertorio para su público de Bilbao. Un concierto en el que los instrumentos dialogan entre sí, ella dialoga con los instrumentos y el público recibe el calor de esta íntima fusión. No en balde el nombre del concierto "PSB" alude a las iniciales de la artista, pero también al Piano, Saxo y Bajo que la acompañan.



Música sinfónica con la BOS

## ITOITZ SUITE

### martxoa 11 marzo

**Juan Carlos Pérezek, 70eko eta 80ko hamarkadetan euskarazko musikaren erreferente izan zen Itoitz taldeko lider eta fundatzaileak, bakarka ekin dio bere karrerari taldea banatu ondoren ere. Oraingoan, BOS-Bilbao Orkestra Sinfonikoak lagundurik, Arriagako eszenatoki gainera igo zen, Itoitzen musika orijinala orkestra sinfonikoarentzako bertsioan eskaintzera "Itoitz Suite" izeneko ikuskizunean.**

Juan Carlos Pérez, líder y fundador de Itoitz, grupo de referencia en la música en euskera en los años 70 y 80, ha continuado con su carrera en solitario tras la disolución de la banda. En esta ocasión se presentó en el Arriaga ofreciéndonos un concierto de la música original de Itoitz en versión para orquesta sinfónica, titulada "Itoitz Suite", interpretada por la BOS (Bilbao Orkestra Sinfonikoa / Orquesta Sinfónica de Bilbao).



Richard France

## SU SEGURO SERVIDOR, ORSON WELLES

### martxoa 12 - 14 marzo

**Richard France-ren "Su seguro servidor, Orson Welles" antzerki obrak zinema zuzendari amerikar handiaren azken porrota kontatzen du. Zakur-janari iragarkiak grabatzen dituen bitartean, sekula iritsiko ez den Steven Spielberg-en telefono deiaren zain dago, bere "On Kixote" amaitu ahal izateko. Azkenaldian interpretatu dituen eta bere karrera bikaina markatu duten paperen ildotik, José María Pou aktorea galtzaile handi baten azalean sartuko da berriro, Esteve Riambau-ren zuzendaritzapean.**

En "Su seguro servidor, Orson Welles", la obra teatral de Richard France se nos cuenta la última derrota del gran director de cine americano. Mientras graba anuncios de comidas para perros, espera inútilmente una llamada de Steven Spielberg que le hubiera permitido acabar su "Don Quijote". Dirigido por Esteve Riambau, José María Pou se enfrenta a otro de los grandes perdedores que han jalonado últimamente su brillante carrera.



Lila Downs y la Misteriosa: en París

## LILA DOWNS

### martxoa 15 marzo

**Chavela Vargasek hauxe esan zuen artista honi buruz Mexikon eman zuen azken kontzertuan: "Ni banoa, urteak ere aurrera doaz eta, baina nire tokia betetzera dator Lila Downs izeneko andere bat". Lila Downsek eskainitako kontzertuan bere azken diskoa aurkeztu zigun, "Lila Downs y la Misteriosa: en París". Bere karreraren errepasoa egin zuen eta bere kantu ezagunenak entzun genituen, mundu osoan ikaragarrizko arrakasta eman dioten emozio eta indarraren lekuko izan ginelarik.** 

La artista de la que Chavela Vargas dijo en su concierto de despedida en México: "Yo ya me voy porque los años pasan, pero viene en lugar mío una señora llamada Lila Downs", nos ofreció un concierto en el que presentó su último disco, "Lila Downs y la Misteriosa: en París". En él pudimos escuchar sus temas emblemáticos, un verdadero repaso a su carrera, donde dejó muestra de la energía y la emoción que han hecho famosa a esta cantante mexicana.





NEBBIA

Cirque Éloize

# NEBBIA

## martxoa 18 - 21 marzo

Cirque Éloize-k Teatro de Sunil-ekin batera produzitu duen “Nebbia” (lanbroa italieraz) ikuskizuna aurkeztu zigun, zeruko trilogiaren hirugarren zatia. Beste biak “Nomade” eta “Rain” dira, eta Daniele Finzi Pasca-k sortu ditu hirurak. Sentiberatasun eta poesia hutsez betetako muntaia honek haurtzarorako bidaia kontatzen du, zeina behin eta berriro berrasmatzen baita interprete talde bikain batek eszena gainean dantzatzen duen antzerki akrobatikoaren geometriekin eta argitasunarekin.

El Cirque Éloize en coproducción con el Teatro de Sunil nos presentó “Nebbia” (niebla en italiano), tercera entrega de una trilogía del cielo, de la que forman parte también “Nomade” y “Rain”, creaciones todas ellas de Daniele Finzi Pasca. Un montaje lleno de sensibilidad y pura poesía que cuenta un viaje a la infancia continuamente reinventada sirviéndose de las geometrías y de la lucidez del teatro acrobático que un extraordinario grupo de intérpretes baila en escena.



Patxi Gallego

# XABINAITOR

## martxoa 22 - 23 marzo

Gorringo konpainiak Patxi Gallegoren komiki orijinala moldatu zuen antzerkirako eta aukera paregabea eskaini zigun geure buruei barre egiteko. “EGA titulua daukan super-heroi bakarra”, horixe da Xabinaitor, euskarazko muntaiaren protagonista. Anatz Zuazuak zuzendutako eta Nagore Aramburuk egokitutako obra hau umore lotsagabe eta garratzez betea dago eta aktore ezin dibertigarriago baten interpretazioa eskaintzen du gainera, ETBn egindako lanengatik ezaguna den Anjel Alkainena.

Con la declarada intención de reírnos de nosotros mismos, la compañía Gorringo nos ofreció esta adaptación al teatro del comic original de Patxi Gallego. Conocido como “el único superhéroe que tiene el título EGA”, Xabinaitor es el protagonista de este montaje en euskera, dirigido por Anatz Zuazua y adaptado a la escena por Nagore Aramburu, lleno de un humor irreverente y corrosivo, que cuenta con la interpretación del divertidísimo actor, famoso por sus trabajos para ETB, Anjel Alkain.



Antonio Caldara

# MAGDALENA A LOS PIES DE CRISTO

## martxoa 26 marzo

BAS (Bilbao Ars Sacrum) eta Bilbao 700 Fundazioak Antonio Caldararen “Maddalena ai piedi di Cristo” oratorioa aurkeztu zuten. Gaur egun oso ezaguna ez den arren, Antonio Caldara barrokoko konposatzaile handienetako bat izan zen. Vivaldiren garaikide eta herrikidea, asko estimatu zuten bera baino askoz ezagunagoak izan ziren autoreek: Bach, Telemann, Haydn, Mozart edo Beethoven-ek. Ottavio Dantone arduratu zen muntaia honen zuzendaritza musikalaz eta Frederic Amat margolari eta eszenografoa izan zen eszena zuzendaria.

BAS (Bilbao Ars Sacrum) y la Fundación Bilbao 700 presentaron “Maddalena ai piedi di Cristo” oratorio de Antonio Caldara, escasamente conocido en la actualidad pero que fue uno de los grandes compositores del barroco. Contemporáneo y paisano de Vivaldi, fue tenido en muy alta consideración por autores como Bach, Telemann, Haydn, Mozart o Beethoven. El montaje fue dirigido musicalmente por Ottavio Dantone y escénicamente por el pintor y escenógrafo Frederic Amat.

**Ikuskizun hau gure agertokian izan da Bilbao 700 Fundazioaren eta Arriaga Antzokiaren arteko lankidetzari esker.**

Este espectáculo llega a nuestro escenario como fruto de la colaboración entre la Fundación Bilbao 700 y el Teatro Arriaga.



# LUIS EDUARDO AUTE

## martxoa 27 marzo

Luis Eduardo Aute diziplina ugari ukitzen dituen artista da; kantari eta kantu konposatzaile izateaz gain, margolari ezaguna ere bada, hainbat poema liburu idatzi ditu eta animaziozko filmak sortzen ditu. Arriagan eskainitako emanaldian, bere musikari onenetako hiru ekarri zituen berekin: Igor Tukalo (teklatuak eta pianoa), Tony Carmona (gitarra) eta Cristina Narea (gitarra eta ahotsak). Auteren “Autorretratos 3” azken diskoa aurkeztu zuten, berrogei urte baino gehiagoko karrera artistikoan izandako arrakasta handiak biltzen dituen lana alegia.

Luis Eduardo Aute es un artista multidisciplinar que además de cantar y componer canciones, es un pintor afamado, autor de varios libros de poemas y creador de películas de animación. En su actuación en el Arriaga quiso presentarnos, en compañía de tres de sus mejores músicos: Igor Tukalo (teclados y piano), Tony Carmona (guitarra) y Cristina Narea (guitarra y coros), su último disco, “Autorretratos 3”, un viaje musical a través de los mayores éxitos de una carrera artística de más de cuarenta años.



Heinrich von Kleist

# LA MARQUESA DE O

## martxoa 31 - apirila 3
31 marzo al 3 abril



Pentación Espectáculos enpresak Amaia Salamanca, Josep Linuesa, Juan José Otegui eta Tina Sainz aktoreek interpretatutako eta Magüi Mirak zuzendutako Heinrich von Kleist-en "La marquesa de O" produkzioa aurkeztu zigun. Heinrich von Kleist alemanez idatzitako dramaren berritzaile nagusitakotzat jotzen da. Bere obra eskandalu baten istorioa da; markesa alargun gazte batek prentsako iragarki baten bitartez eskatzen dio bere semearen aita ezezagunari berekin harremanetan jar dadila.

Pentación Espectáculos nos presentó su producción de "La marquesa de O" de Heinrich von Kleist interpretada por Amaia Salamanca, Josep Linuesa, Juan José Otegui y Tina Sainz y dirigida por Magüi Mira. Heinrich von Kleist, considerado actualmente uno de los principales innovadores del drama en lengua alemana, nos plantea el escándalo de una joven marquesa viuda que, mediante un anuncio en la prensa, solicita al desconocido padre de su hijo que se ponga en contacto con ella.



# CECILIA BARTOLI

## apirila 10 abril

Cecilia Bartoli mezzo-soprano italiar handia, musika klasikoaren esparruko artista garrantzitsuenetakoa bi hamarkada baino gehiagoan, instrumentu orijinalen La Scintilla orkestrak lagunduta etorri zen Arriaga Antzokira kontzertu bat eskaintzera, eta, besteak beste, ondoko hauek interpretatu zituen: Haendel, Hasse, Porpora, eta abar. Bilbao Urtaro Barrokoak, Arriaga Antzokiak eta Bilbao 700 Fundazioak elkarrekin eginiko lanari esker ekarri genuen gure eszenatokira.

La gran mezzosoprano italiana Cecilia Bartoli, que durante más de dos décadas ha sido indudablemente una de las artistas más destacadas en el ámbito de la música clásica, se presentó en el Arriaga en un concierto acompañada de la orquesta de instrumentos originales La Scintilla, interpretando un programa con música de Haendel, Hasse, Porpora y otros. Su presencia en nuestro escenario fue posible gracias a la colaboración de Bilbao Estación Barroca, el Teatro Arriaga y la Fundación Bilbao 700.

TEATRO ARRIAGA ANTZOKIA

**Ikuskizun hau gure agertokian izan da Bilbao 700 Fundazioaren eta Arriaga Antzokiaren arteko lankidetzari esker.**

Este espectáculo llega a nuestro escenario como fruto de la colaboración entre la Fundación Bilbao 700 y el Teatro Arriaga.





CECILIA BARTOLI

# MICHAEL NYMAN BAND

## apirila 14 abril

Michael Nyman Britainia Handiko konpositore berritzaile eta txalotuenetako bat da eta bere lanen artean operak, hari kuartetoak, pelikuletarako soinu bandak edota orkestrarako kontzertuak aurki daitezke. Horrez gain, interpretea, zuzendaria, piano-jolea, idazlea, musikologoa, argazkilaria eta zinemagilea ere bada eta gure garaiko ikono kultural liluragarri eta garrantzitsuenetakotzat jotzen da. Arriagako eszenatokian Michael Nyman Band zuzendu zuen. Talde hori normalean kide gehiago hartu ohi dituen hari laukote batek osatzen du: hiru saxo, tronboi baxua, baxua eta pianoa.

Michael Nyman, uno de los compositores británicos más innovadores y aclamados, cuyo trabajo abarca óperas, cuartetos de cuerda, bandas sonoras de películas y conciertos orquestales y que es además intérprete, director, pianista, escritor, musicólogo, fotógrafo y cineasta está considerado como uno de los iconos culturales más fascinantes e influyentes de nuestro tiempo. Se presentó en el Arriaga al frente de la Michael Nyman Band, conjunto compuesto habitualmente por un cuarteto de cuerda amplificado, tres saxos, trombón bajo, bajo y piano.



# LES BALLETS TROCKADERO DE MONTE CARLO

## apirila 16 - 18 abril

Bilbon izan genituen Montecarloko Les Ballets Trockadero. Dantza klasikoaren zale grinatsu batzuek fundatu zuten taldea 1974an, baleteko forma tradizionalak parodiatzea helburu zutela. Off-off Broadway izeneko gau-jardunaldietan eman ziren ezagutzera; ikaragarrizko arrakasta lortu zuten, mundu mailako gertakari bilakatu zirelarik, eta horrela, dantza jaialdi askotan parte hartu dute Europan, Kanadan eta Estatu Batuetan.

Se presentó en Bilbao esta compañía fundada en 1974 por un grupo de entusiastas de la danza clásica con el objeto de parodiar las formas tradicionales del ballet. Les Ballets Trockadero de Monte Carlo apareció por primera vez en la jornadas nocturnas del Off-off Broadway y obtuvieron un éxito mundial de proporciones alucinantes que los ha llevado a participar en numerosos festivales de danza de Europa, Canadá y Estados Unidos.



Rosa Torres-Pardo y Lola Greco

# ISAAC ALBÉNIZ

## apirila 19 abril

Lola Greco dantzari paregabea eta Rosa Torres-Pardo piano-jolea dira ikuskizun berezi honen sortzaileak, zeintzuen helburua baita publikoari iritsaraztea Isaac Albénizen "Iberia" obra bikaina, zehazki pianorako idatzitako zazpi inpresio hurbilenak, alegia, dantzarako egokiagoak direnak. Bi artistak elkarrekin ikustea eta José Luis Gómezen ahotsean Miguel Torgaren "Poemas Ibéricos" entzutea proposamen ezin hobea da konposatzailea zendu zeneko mendeurrena ospatzeko.

La extraordinaria bailarina Lola Greco y la pianista Rosa Torres-Pardo son las creadoras de este singular espectáculo que se acerca a la genial obra de Isaac Albéniz, "Iberia", concretamente a siete de las impresiones para piano más cercanas y adecuadas a la danza. El conjunto de ambas artistas, junto a los "Poemas Ibéricos" de Miguel Torga en la voz de José Luis Gómez, forman un espectáculo perfecto para la conmemoración de los cien años de la desaparición del compositor.



Patxi Amescua

# 19:30

## apirila 22 - 24 abril

Arriaga Antzokiaren eta K Producciones enpresaren koprodukzioari esker ikusi ahal izan genuen "19:30", Patxi Amescuaren obra orijinala. Adolfo Fernández eta Ramón Ibarrak zuzendu zuten, jantziak eta eszenografia José Ibarrolak egin zituen eta euskal aktore multzo bikain batek interpretatu zuen. Obra honek intriga eta suspentsea erabiliz salatzen du boterean luzaroan egoteagatik beren burua ordezkaezintzat jotzen dutenen ustelkeria.

"19:30", la obra original de Patxi Amescua nos fue presentada gracias a una coproducción del Teatro Arriaga y K Producciones, dirigida por Adolfo Fernández y Ramón Ibarra y con vestuario y escenografía de José Ibarrola e interpretada por un estupendo plantel de actores vascos. La obra, sirviéndose de la intriga y el suspense, es una denuncia de la corrupción de quienes llevan tanto tiempo en el poder que han llegado a juzgarse insustituibles.





LES BALLETS TROCKADERO DE MONTE CARLO

Companya de Dansa

## GELABERT AZZOPARDI

### apirila 29 abril

Gelabert Azzopardi dantza konpainiak kontzeptu, musika eta plastika desberdinekin eginiko bi koreografia eskaini zizkigun Arriagara eginiko azken bisitaldi honetan. Pascal Comeladeren jatorrizko partitura duen Sense fi (Amaierarik gabe) obraren koreografia "barne bidaia" bat da Gelabertentzat. "Conquassabit" obrak, bestalde, Haendel-en hainbat pieza biltzen ditu, baina ez dira pieza osoak; aitzitik, ahots eta instrumentuen zatiak nahasten ditu, gorantz doan erritmoaren mende jartzeko.

La compañía de danza Gelabert Azzopardi, en su nueva visita al Arriaga nos ofreció un programa formado por dos coreografías de concepto, música y plástica diferentes. "Sense fi" (Sin fin) cuenta con una partitura original de Pascal Comelade y su coreografía es entendida por Gelabert como un viaje interior. "Conquassabit" recoge diferentes piezas de Haendel, no completas sino fragmentos vocales e instrumentales sometidos al imperativo rítmico de un pulso creciente.



Arlene Philipps

## FIEBRE DEL SÁBADO NOCHE

### maiatza 6 - 16 mayo

Robert Stigwood-ek Stage Entertainment España konpainiarekin batera aurkeztu zigun "Fiebre del sábado noche" musikala. Obra honek Tony Manero-ren istorioa kontatzen du, larunbat gaua iristean diskotekako errege bihurtzen den dendari xumearena alegia. Zinemako bertsio orijinaleko musika eta dantza konbinazio ikusgarri hark ikono unibertsal bilakatu zuen John Travolta, eta orain produkzio eszeniko bilakaturik, mundu osoko eszenatokiak konkistatu ditu.

Robert Stigwood en asociación con Stage Entertainment España nos presentaron el musical "Fiebre del sábado noche", la historia de Tony Manero, un modesto dependiente que cuando llega la noche del sábado se convierte en el rey de la discoteca. La espectacular mezcla de música y baile que en su original versión cinematográfica hizo de John Travolta un icono universal, ha conquistado los escenarios de todo el mundo al convertirse en producción escénica.



John Malkovich

## THE INFERNAL COMEDY

### maiatza 18 mayo

John Malkovich aktore handia Arriaga Antzokian aurkeztu zen Martín Haselböck, Wiener Akademie zentroko fundatzaile eta zuzendariaren ideian oinarritutako ikuskizun harrigarri batekin. Kontzertu liriko-teatral bat da, orkestra barroko batek, bi sopranok eta aktore batek eskainia. Aktoreak Jack Unterweger interpretatzen du. Unterweger hiltzaile konbiktu eta poeta arrakastatsu bat izan zen, bere buruaz beste egin zuena espetxean. Ikusleek ingelesezko testua uler zezaten, itzulpena proiektatu zen pantaila txiki batean.

El gran actor John Malkovich se presentó en el Arriaga con este sorprendente espectáculo ideado por Martín Haselböck, fundador y director de la Wiener Akademie. Se trata de un concierto lírico-teatral ofrecido por una orquesta barroca, dos sopranos y un actor. Este último interpreta a Jack Unterweger, personaje real, notable poeta y asesino convicto que acabó su vida suicidándose en prisión. El texto en inglés fue seguido con la ayuda de una traducción ofrecida proyectada en una pequeña pantalla.



Les Ballets de Monte-Carlo

## HOMENAJE A LOS BALLETS RUSOS

### maiatza 20 - 22 mayo

Les Ballets de Monte-Carlo taldeak bi obraz osatutako programa bat aurkeztu zigun: N. Rimski-Korsakov-en "Sherezade" eta Maurice Ravel-en "Daphnis et Chloé", biak hala biak konpainiako zuzendari den Jean-Cristophe Maillot-ek eginiko koreografiekin. Egitarau honekin, Les Ballets de Monte-Carlo taldeak omenaldia egin nahi izan die 1911n Printzerrian finkatu ziren Diaghilev-en Balet Errusiarrei, horietatik sortu baitzen gaur egungo taldea.

Les Ballets de Monte-Carlo se presentaron en nuestro escenario con un programa formado por dos obras: "Sherezade" de N. Rimski-Korsakov en primer lugar y "Daphnis et Chloé" de Maurice Ravel, ambas con la coreografía del director de la compañía Jean-Cristophe Maillot. Con este programa Les Ballets de Monte-Carlo rinden homenaje a Los Ballets Rusos de Diaghilev, que en 1911 fijaron su residencia en el Principado y están en el origen de la actual compañía.





Raphael: 50 años después

## RAPHAEL

### maiatza 26 mayo



Raphael Arriagara itzuli zen bere azken bildumaren aurkezpen kontzertua eskaintzera: "Raphael: 50 años después". Herri-musikari eskainitako bere karrera artistiko luzearen urrezko ezteiak ospatu zituen. Karrera bat, itzelezko arrakasta eman diona eta XX. mendeko ikur bihurtu duena. Arrakasta-zerrendak bete dituzten eta belaunaldi ugariren oroimenean itsatsita geratu diren hainbat abestirekin, Raphaelek bere artea eta kantatzen jarraitzeko daukan gogoa erakutsi zizkigun.

